IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 940
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GIZA BALIABIDEAK ANTOLAKUNTZA
pertsonal@pasaia.net

A) KONTRATUAREN XEDEA.

1. Baldintza-agiri honen helburua da **TELEFONIA FINKOA (ahotsa eta datuak) eta TELEFONIA MUGIKORRA (ahotsa eta datuak)** kontratatzea Pasaiako Udalarentzat eta bere erakunde autonomoak diren Pasaia Musikal eta Pasaiako Udal Euskaltegiarentzat (aurrerantzean, udala).
2. Honako zerbitzu hauen barruan, ez dira kontratuaren xede izango:
   a) Telefonia finkoan: Udalak IP bidezko ahots sistema propioa du, udal jabetzakoa (telefonoguneak eta terminalak barne), eta horietara konektatzen dira udalaren eta bere erakunde autonomoen sare nagusiak. Barne-komunikazioen atala behar bezala konponduta dagoenez, alderdi hori kontratuaren xedetik kanpo geratzen da, eta enpresa lizitatzaileek ez daukate zertan alderdi hori konpontzera bideratutako proposamenak aurkeztu, ez ekipamenduei dagokienez, ez sare pribatu birtualen sorrerari dagokionez.
   b) Telefonia mugikorrean: Udalak nahikoa telefono-terminal du jabetzan bere beharrak betetzeko. Terminal guztiak konfiguratuta daude edozein operadorerekin erabiltzeko. Beraz, enpresa lizitatzaileek ez dute terminalik edo antzeko beste gailurik eskaini behar.
3. Era berean, lizitatzaileek ez dute zertan konponbiderik proposatu, telefonia finkoko sistemak eta telefonia mugikorreko sistemak integratzeko, ez sare birtual pribaturik ere, ez numerazio-plan pribaturik.
4. Inolaz ere ez da iraunkortasun-konpromisorik ezarriko kontratuaren iraupenetik haratago, ez egungo lineetarako ez etorkizuneko lineetarako. Halaber, hitzartu litezkeen iraunkortasun-konpromisoak indarrik gabe geratuko dira kontratua deuseztatzen bada, eta enpresa esleipendunak ezin izango du kontzeptu horregatik inolako penalizazio edo errekargurik ezarri.
5. Telekomunikazioen merkatua etengabe garatzen ari denez, konponbide, zerbitzu eta tarifei dagokienez; enpresa esleipendunak automatikoki aplikatu beharko dizkio udalari ezar litezkeen hobekuntza tekniko, operatibo eta ekonomiko guztiak.
6. Kontratuaren iraunaldian linea edo zerbitzu berrien altak egiten badira, eskaintzan adierazitako banakako prezioen arabera igoko dira kontratuaren kostuak. Era berean, kontratuaren iraunaldian linea edo zerbitzuetan bajak ematen badira, dagokion murrizketa ezarriko da kostuetan.
7. Kontratua indarrean dagoen bitartean Udalak gaur egun kontratatutakoez bestelako produkturen bat kontratatu behar badu, enpresa esleipendunak kontratatutako gainerako tarifekin bat datorren tarifa aplikatu beharko dio produktu berriari.
8. Egungo numerazioa mantenduko da, Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorrean ezarritakoarekin bat; eta, operadorea aldatuz gero, eramangarritasuna erabiliko da. Egoera hori gertatzen bada, esleipendunak memoria teknikoan adieraziko du zer prozesu eta denbora erabiliko duen aldaketa horiek egiteko.
9. Operadore migrazioa egiten bada, edo baldintza-agiri honetan espresuki eskatzen ez den beste aukeraren bat ezartzen bada; udalak ez du inolako inbertsiorik, kosturik edo ekipamendurik bere gain hartuko, ezta horrek hobekuntza objektiboa badakar ere.
10. Migrazioetatik edo edozein motatako aldaketa tekniko edo operatiboetatik eratorritako zerbitzu-mozketak edo -murrizketak ezohikoak eta iraupen laburrekoak izango dira. Era horretako operazioetan beharrezko neurriak ezarriko dira, erabiltzaileak horietaz ohar ez daitezen.
11. Telefonia-operadoreen arteko migrazio-prozesuetatik eratorritako prozedura administratibo, juridiko edo bestelakoetan udalak izango duen parte-hartzea bere betebeharrak betetzera mugatuko da.
12. Udalak espresuki baimentzen dituen kasuetan izan ezik, esleipendunak ezingo dizkio udal titulartasuneko zenbakiak hirugarren batzuei edo erakundeei eman, ezta “orri zuriak" bezalako zerbitzu edo enpresei ere.
13. Esleipendunak fakturak elektronikoki egingo ditu, "Facturae” euskarri estandarizatuaren

bitartez. Halaber, sistema elektroniko bat jarriko du udalaren eskura, kontratatutako produktuak ustiatzeko, fakturaziorako, ahots-trafikoetarako, datuen kontsumorako… Hori guztia formatu tabulagarrietan (kalkulu-orriak, CSV, etab.).

14. Enpresa esleipendunak bere sistemak eraginkor mantenduko ditu egunean 24 orduz eta 365 egunetan.
15. Kontratu honen indarraldia amaitutakoan, Udalak ez badu beste kontratu bat formalizatu hornitzaile berarekin edo beste batekin, edo, formalizatu ondoren, operadorearen migrazioa egiteke badago, aurreko enpresa esleipendunak telefonia-zerbitzua ematen jarraitu beharko du, une horretara arte indarrean zeuden baldintza tekniko eta ekonomiko berberetan.
16. Sare eta zerbitzu guztiak behar bezala babestuta egongo dira, baimendu gabeko edozein sarrera eta/edo informazio-ihesen aurka; eta sistemen autentifikazioa, konfidentzialtasuna, osotasuna eta integritatea bermatzeko neurriak izango dituzte. Hala badagokio, udalak enpresa esleipendunari erantzukizunak eska diezazkioke, udal zerbitzu eta sistemei eragiten dieten gorabeherak gertatuz gero.
17. Emandako zerbitzuek segurtasun-eskema nazionala bete beharko dute.
18. Bai enpresa lizitatzaileek eta bai esleipendunak hitzemango dute udal honetatik jasotzen duten informazio guztia, kontratu honekin zerikusia duena, isilpean gordeko dutela, zainduko dutela eta, enpresa horietako langileek ez dutela informazioa zabalduko, horretarako berariazko baimena izan ezean. Betebehar hori indarrean egongo da, baita kontratua bukatu edo indargabetu ondoren ere.

B) LIZITAZIOAREN GEHIENEKO ZENBATEKOA ETA MODALITATEA

Lizitazioaren gehieneko zenbatekoa urteko 21.780 € izango da (18.000.- € gehi 3.780 € BEZari dagozkionak), eta prezioa lineako **tarifa** laua izango da (finkoa zein mugikorra).
Informazio-ondorioetarako soilik, zenbateko hori honako batura honetatik abiatuta lortu da:

- Telefonia finkoan: 10.500 € urtean (BEZik gabe).
- Telefonia mugikorra: 7.500.- € urtean (BEZik gabe).

C) KONTRATUAREN XEDE DIREN TELEFONIA FINKOKO LINEAK

1. Egun kontratatuta dauden lineak

Linea	Helbidea	Abiadura jaistea/igotzea
SIP TRUNK-Connect-Lan 20 kanal, 119 DDIs: NEBA 350/350 Mbps FTTH	Donibane kalea 19-Arizabalo	350 MB
FTTH Aireratzeko Zerbitzua (1 IP)	Donibane kalea 19-Arizabalo	500 MB
FTTH Aireratzeko Zerbitzua (8 IP)	Donibane kalea 19-Arizabalo	500 MB
FTTH Despega zerbitzua + ahots-lerroa	Marinelen kalea 4	600 MB
FTTH Despega zerbitzua + ahots-lerroa	Gran Sol 11	500 MB
FTTH Internet NEBA-VULA	Euskadi etorbidea z.g.	500 MB
FTTH Aireratzeko Zerbitzua (1 IP)	Bidasoa 1	500 MB
Internet 500 Mega 1 IP	Donostia z.g.	500 MB
FTTH Desapega Zerbitzua	Ulia etorbidea 13 bis	500 MB
Internet 500 Mega	Kupeldegi 11	500 MB
FTTH Internet NEBA-VULA	Hamarretxeta 13	600 MB
FTTH Internet NEBA-VULA	Hamarretxeta 25	500 MB

2. Telefonia finkoko eskaintzaren ezinbesteko baldintzak

Enpresa lizitatzaileak aurreko atalean zerrendatzen diren linea finko guztiei zerbitzua emateko gaitasuna izan behar du; horretarako, enpresa esleipendunak hitzemango du eskatutako zerbitzu guztiak emango dituela, eskatutako puntu geografiko guztietan. Baldintza hori betetzen ez duten

enpresak lizitaziotik kanpo geratuko dira.

Kokapenen batean enpresa lizitatzaileak ez badu sare propiorik eta linea hori beste operadore batekin azpikontratatzeko asmoa badu, berariaz jaso beharko du memorian, Udalarentzako informazio-ondorioetarako soilik.

Enpresa lizitatzaileak ez badu produktu jakin bat (adibidez, abiadura jakin bateko Interneteko linea bat), ezaugarri bereko edo handiagoko beste bat eskaini beharko du. Inola ere ez da puntuazio gehigarririk emango ezaugarri horiek hobetzeagatik, eta baldintza-agirian eskatzen diren gutxieneko baldintzak betetzea soilik baloratuko da, gainerako eskaintzen baldintza berberetan.

Teknologian eta gailuetan proposatutako aldaketak eta/edo hobekuntzak eskaintzan adierazi behar dira, eta horiek ez diote udalari inolako inbertsio edo kosturik ekarriko (ez dirutan eta ez ekipamendutan).

3.- Harguneak

Enpresa esleipendunaren lana izango da harguneak egitea udal eraikinen barruraino, udal teknikariek adierazitako ildoei jarraituz. Hargunea amaiera-puntu batean bukatuko da, eta hori udal ekipamenduari konektatuko zaio.

Udal zerbitzu teknikoei horren berri eman ondoren, Udalak baimena emango die enpresa esleipendunak izendatutako langileei udal eraikinetara sartzeko, komunikazio-azpiegiturak instalatzeko eta horien mantentze-lanak egiteko.

Kontratuak dirauen bitartean, azpiegitura horretan zerbitzua ondo emateko aldaketaren bat egin behar izanez gero, Hardwarea nahiz Softwarea, udal teknikariekin batera egingo da aldaketa hori, eta udalarentzat doakoa izango da.

Enpresa esleipendunak udalari beharrezko informazio tekniko guztia emango dio, sistemen funtzionamendua egokia izan dadin; eta udal sarera konektatutako sareko gailuetarako sarbidea izango du, administratzaile-mailakoa.

D) KONTRATUAREN XEDE DIREN TELEFONIA MUGIKORREKO LINEAK

1. Egun kontratatuta dauden lineak

Egun udalak telefonia mugikorreko 115 linea ditu kontratatuta, eta horiek honela sailka litezke:

- A mota: sistema automatizatuetarako SMS lineak (adibidez, argiteria publikoaren kontrol-koadroak). Ez dago ez ahots eta ez datu trafikorik.
- B mota: sistema automatizatuetarako datuak bakarrik (adibidez, ur-biltegiak). Ez dago ahots eta SMS trafikorik:
  - B-I azpimota: deskarga-bolumen txikia (gaur egun, 3 Gb hilean).
  - B-II azpimota: deskarga-bolumen ertaina (gaur egun, hilean 10 Gb).
- C mota: ahots-lineak, datuak eta SMSak, ahots-trafikoa, datuak eta SMSak dituzten smartphoneetan erabiltzeko:
  - C-I azpimota: deskarga-bolumen txikia (gaur egun, 3 Gb hilean).
  - C-II azpimota: deskarga-bolumen ertaina (gaur egun, 20 Gb hilean).

Linea mota	Kontratatutako linea kopurua
A. SMSak bakarrik	42
B-I. 3 Gb-ko datuak bakarrik	31
B-II. 10 Gb-ko datuak bakarrik	0
CI. Ahotsa eta datuak: 3 Gb	39
CII. Ahotsa eta datuak: 20 Gb	3

2. Telefonia mugikorreko eskaintzaren ezinbesteko baldintzak

Tarifa lauan nahitaez sartuko dira honako zerbitzu hauek 24 orduz, ezarpen-kosturik gabe, eta iraupen mugarik gabe, xede-zenbakiaren operadorea edozein dela ere:

- "A" mota: SMS mezu bidalketa mugatua.
- B mota: Interneteko trafikoa, ezartzen den datu-mugarekin.
- C mota: Deiak telefono finko eta mugikorretara, SMS mezuak mugarik gabe, eta Interneteko trafikoa, ezartzen den datu-mugarekin.

B eta C motetan, behin hilabeteari dagokion datu-deskarga agortu ondoren, enpresa esleipendunak ezingo du konexioa eten, eta ezingo ditu kostuak handitu; horren ordez, konexio-abiadura moteldu dezake, eta halakoetan lineak ohiko abiadura berreskuratuko du, bai udalak bonua (eta, beraz, tarifa) zabaltzea erabakitzen duelako, edo bai beste hilabete bat hasten delako.

Egun eraginkor dauden lineetarako beharrezko SIM txartelez gain, enpresa esleipendunak Udalari mota ezberdinetako SIM txartel batzuk (arrunta, MicroSIM eta NanoSIM) emango dizkio, kontratuaren iraunaldian behar diren linea berrietarako; edo aurrekoak ordezteko, laburtu, galdu edo hondatuz gero. SIM txartel horien hornikuntzak ez du kosturik izango udalarentzat. Txartelak eraginkor jartzeko prozedura ahalik eta errazena eta azkarrena izango da (adibidez, posta elektronikoaren bidez eskatuta).

3.- Estaldura

Enpresa esleipendunak ahots- eta datu-estaldura izan beharko du Pasaiako hiri-ingurune osoan, udal-bulego guztien barrualdea barne, eta landa-eremuen % 85ean (landa-ingurunerako ez da zenbatuko Jaizkibel mendiaren iparraldeko isurialdea).

Halaber, enpresa esleipendunak ahots- eta datu-estaldura izan behar du, bai Estatu barruan eta bai nazioartean, dagozkion ibiltaritza-akordioen bidez. Enpresa lizitatzaileek ahots-estalduraren mapa eguneratua eta 3G, 4G eta 5G estaldura-mapak izan beharko dituzte, udalak kontsulta ditzan. Era berean, kontsultarako erabilgarri izan behar dituzte, halakorik izanez gero, Estatuko eta nazioarteko beste operadore batzuekin ezarritako roaming-akordioak. Kontsulta biak enpresa esleipendunaren webguneetako URL espezifikoetara erreferentziatu ahal izango dira.

E) HEDAPEN EDO ESTALDURARIK EZAREN SALBUESPENEZKO KASUAK

Kontratua indarrean dagoen bitartean enpresa esleipendunak ezin badu produktu jakin bat eskaini kokapen jakin batean (adibidez, linea finko edo mugikor bat hedapenik eta estaldurarik ez duen sistema automatizatu batean), Udalak produktu hori beste operadore batekin kontratatzeko aukera izango du. Kasu horretan kontratazio berriak sortutako gestio eta kostu guztiak udalak bakarrik hartuko ditu bere gain.

F) HARREMANA

Udalaren eta enpresa esleipendunaren arteko komunikazio guztiak azkartasunez eta arintasunez bideratze aldera, enpresak honako harremanetarako pertsonak izendatuko ditu:

- Komertziala: zerbitzu berrien kontratazioaz, fakturazioaz, eskaintza eta promozioez eta aurrekontuez arduratuko da.
- Langilea: mantentze-lanez, instalazioez, gorabeherez eta matxurez arduratuko da.

Udalak, era berean, harremanetarako pertsona bat izendatuko du, eta enpresa esleipendunari horren berri emango dio. Kontratuaren iraunaldian adostu litezkeen salbuespenak alde batera utzita, enpresa esleipendunaren eta udalaren arteko harreman komertzialak eta operatiboak soilik udalak izendatzen duen harremanetarako pertsonaren bitartez bideratuko dira.

G) MEMORIA TEKNIKOA

Eskaintzek gutxieneko memoria tekniko bat izango dute barne (baloratzekoa ez dena), honako atal hauek bakarrik jasoko dituena:

a) Lineak ezartzeko edo migratzeko plana, zeinean aurreikus litezkeen zerbitzu-mozketak edo -murrizketak zehaztuko diren. (Oharra: egun kontratatutako enpresak ez du atal hau bete beharko).
b) Harreman komertziala, operatiboa eta bezeroari arreta ematekoa: Eskaerak, gorabeherak, matxurak eta kontsultak kudeatzeko prozesuak eta bitartekoak.
c) Enpresa lizitatzaileak beste operadore batekin azpikontratatzeko asmoa duen linea finkoak, C-2 atalean deskribatutakoaren arabera.
d) Estaldura mugikorra, baldintza-agiri honen D-3 atalean adierazitakoaren arabera.
e) Enpresa lizitatzaileak kontratu honen esparruan jaso nahi duen beste edozein atal.

H) ZERBITZUAREN KALITATEA

Enpresa esleipendunak kalitate handiko zerbitzua emateko konpromisoa hartuko du. Bestela, udalak administrazio-baldintza partikularren agirian jasotako penalizazioak aplikatuko ditu.

1. **Erabilgarritasuna:** Zerbitzu finkoa eta/edo mugikorra erabat aktibo eta funtzionamenduan dagoen denboraren ehunekoa da, eta hileko % 99,9an ezartzen da linea edo zerbitzu indibidual bakoitzeko.

Ez dira erabilgarritasunik gabeko alditzat hartuko da Udalari edo enpresa esleipendunaz kanpoko hirugarrenei zuzenean egotz dakizkiekeen arrazoiengatik sortutakoak.

2. **Estaldura mugikorra:** Elkarrizketa bat izan, SMS mezuak bidali edo datuak deskargatzeko aukera dagoen lurralde-zatia. Pasaiako udalerriko hiri-ingurunearen eta periferiaren % 95ean ezartzen da, udal-bulego guztien barnealdea barne, eta landa-eremuen % 85ean (landa-ingurunerako ez da zenbatuko Jaizkibel mendiaren iparraldeko isurialdea).

3. **Eskaerak eta kontsultak egiteko epeak:** Enpresa esleipendunak edozein motatako eskaerei (altak, bajak eta aldaketak) erantzuteko edo Udalak egindako kontsultei erantzuteko behar duen denbora da. Erantzuteko, gehienezko epe hauek ezartzen dira:
   - Hedapena duen lerro finko berriari alta ematea: 10 lanegun.
   - Hedapena ez duen lerro finko berriari alta ematea: 30 lanegun.
   - Linea finko edo mugikorrari baja ematea: 3 lanegun.
   - Linea finkoa edo mugikorra aldatzea edo konfiguratzea: 5 lanegun.
   - Barne-zenbaki finkoaren eramangarritasuna (hau da, enpresa esleipendunaren zenbaki propioekin): 5 lanegun.
   - Kanpoko zenbaki finkoaren eramangarritasuna (hau da, beste operadore bati dagozkion zenbakiekin): 30 lanegun.
   - Udalak eskatutako produktu, eskaintza edo bestelakoei buruzko informazioa: 5 lanegun.
   - SIM txartela aktibatzea: 3 lanegun.

   Ez dira epeen ez-betetzetzat hartuko udalari edo enpresa esleipendunarekin zuzenean lotuta ez dauden hirugarrenei egotz dakizkiekeen arrazoiengatik sortutakoak.

Erabilgarritasunari, estaldurari edo epeei dagokienez ez-betetzeren bat atzematen bada, Udaleko informatika arloak txostena igorriko dio udaleko kontratazio organoari, gorabehera, larritasuna eta iraupena adierazita.

Txosten horren ondorioz, dagokion espedientea egin ahal izango da, eta, dagokion entzunaldi-izapidea egin ondoren, administrazio-klausulen agirian jasotako zigorrak ezarri ahal izango dira.

I) KONTAKTUA

Enpresa lizitatzaileek beharrezkotzat jotzen dituzten gai teknikoak planteatu ahal izango dituzte proposamen onenak egin ahal izateko. Horretarako, idatziz eta posta elektronikoz bidali beharko dituzte galderak helbide honetara:
informatika@pasaia.net

J) ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Bi balorazio-irizpide erabiliko dira: eskaintza ekonomikoa eta datuen abiadura/bolumena.

1. balorazio-irizpidea: Eskaintza ekonomikoa

Eskaintza ekonomikoa balorazio-irizpidearen % 70 izango da, administrazio-baldintza zehatzen agirian ezarritakoaren arabera. Zenbateko txikiagoko eskaintza ekonomikoak hobeto baloratuko dira. Irizpide hori hiru atalen baturak osatuko du:

a) Telefonia finkoko tarifa finkoa.

Kontratatu beharreko linea finko bakoitzeko, enpresa lizitatzaileek urteko kuota finko bat proposatuko dute. Kuota hori aldatu gabe mantendu beharko da kontratua indarrean dagoen bitartean, Udalak linearen ezaugarriak edo prestazioak aldatzeko eskatzen ez duen bitartean.

Tarifa horiek erreferentziatzat hartuko dira, kontratuaren iraunaldian izan litezkeen alta berrien kostuak kalkulatzeko garaian, edo izan litezkeen bajen ondorioz kontratuaren prezioa zenbatean murriztuko den kalkulatzeko; baldintza-agiri honen A-6 atalean ezarritakoarekin bat.

Prezioek barne hartuko dituzte kontratua eraginkortasunez betetzeko beharrezko gastu guztiak. Tarifa lauan nahitaez sartuko dira honako zerbitzu-mota hauek 24 orduz, ezarpen-kosturik gabe, eta iraupen mugarik gabe, xede-zenbakiaren operadorea edozein dela ere:

- Dei lokalak.
- Probintzia barruko deiak.
- Estatu barruko deiak.
- Telefono mugikorretara egiten diren deiak.
- Interneteko trafikoa.

Eranskineko I. taulan, enpresa lizitatzaileek lerro bakoitzari aplikatu beharreko tarifa lauaren urteko zenbatekoa adierazi beharko dute.

b) Telefonia mugikorreko tarifa finkoa.

Kontratatu beharreko lerro mota eta azpimota bakoitzeko, enpresa lizitatzaileek urteko kuota finko bat proposatuko dute. Kuota hori aldatu gabe mantendu beharko da kontratua indarrean dagoen bitartean, Udalak linearen ezaugarriak edo prestazioak aldatzeko eskatzen ez duen bitartean.

Tarifa horiek erreferentziatzat hartuko dira, kontratuaren iraunaldian izan litezkeen alta berrien kostuak kalkulatzeko garaian, edo izan litezkeen bajen ondorioz kontratuaren prezioa zenbatean murriztuko den kalkulatzeko; baldintza-agiri honen A-6 atalean ezarritakoarekin bat.

Honako tarifa mota eta azpimota hauek ezartzen dira:

- A motako tarifa: SMS bakarrik.
- B motako tarifa: datuak bakarrik:
  - B-I azpimotako tarifa: Hileko deskarga-gaitasun txikia (3 Gb).
  - B-II azpimotako tarifa: Hileko deskarga-gaitasun ertaina edo txikia (10 Gb).
- C mota: ahotsa, datuak eta SMS-ak (smartphoneak):
  - C-I azpimotako tarifa: Hileko deskarga-gaitasun txikia (3 Gb).
  - C-II azpimotako tarifa: Hileko batez besteko deskarga-gaitasun txikia (20 Gb).

Gerta liteke enpresa lizitatzaileak, politika komertzialen ondorioz, deskribatutako produktu jakinen bat ez izatea (adibidez, SMS hutseko tarifarik ez izatea). Kasu horietan, enpresa lizitatzaileak udalaren beharretara hobekien egokitzen den produktua proposatu beharko du.

Eranskineko II. taulan, enpresa lizitatzaileek lerro mota eta azpimota bakoitzerako eskaintzen dituzten urteko zenbateko unitarioak adierazi beharko dituzte.

c) Tarifa lauetatik kanpo geratzen diren deiak.

Enpresa lizitatzaileek tarifa lauetatik kanpo utzitako zerbitzuak edo deiak adierazi beharko dituzte (normalean, nazioarteko deiak, 902 zenbakietara, sare adimendunera, etab.). Eskaintzan berariaz baztertu ez den zerbitzu edo dei oro tarifa lauetan sartuta dagoela ulertuko da, eta, beraz, ezingo

dio inolako gastu gehigarririk ekarri udalari.

Udalaren azken 12 hilabeteetako telefono-fakturazioaren azterketa zehatz batean, ikusi da nazioarteko 50 dei inguru egin direla, 902 zenbakira 75 dei eta sare adimendunera 20 dei.

Beraz, atal honen balorazio objektiboa egiteko, horren arabera urtean aurreikusten den deien bolumena aurreikusiko da, dei horiek 3 minutuko iraupena dutela kontuan izanik.

Deskribatutako hiru kasuez gain, enpresa esleipendunak beste dei edo zerbitzu batzuk tarifa lautik kanpo utzi nahi baditu, eskaintzan berariaz adierazi beharko du. Kasu horretan, balorazio objektiborako, urtean 50 dei zenbatuko dira dei-mota berri bakoitzeko, 3 minutukoak.

III. taulan, baztertutako dei edo zerbitzu bakoitzaren kostuak adierazi beharko dituzte enpresa lizitatzaileek, establezimendu eta minutu bakoitzeko, salbu eta tarifa finkoan bat edo batzuk sartzea erabakitzen badute; kasu horretan, berariaz adierazi beharko dute.

Atalaren guztizkoa kalkulatzeko, mota bakoitzetik salbuetsitako aurreikusitako dei-kopurua, eskainitako ezartze-kostuekin eta denborarekin (3 minutu) biderkatuko da. Ondoren, kanpoan utzitako dei-mota guztien kostuak gehituko dira.

2. balorazio-irizpidea: Datuen abiadura/bolumena

Datuak deskargatzeko abiaduren eta bolumenen batura balorazio-irizpidearen % 30 izango da. Hobeto baloratuko dira deskarga-abiadura eta/edo -bolumen handiena eskaintzen duten eskaintzak. % 30 hori bi atalen baturatik lortuko da:

a) Telefonia finkoko datuen abiadura

Balorazio-irizpidearen % 15 izango da.
Kontratatutako datu-lerro guztien jaitsiera- eta igoera-abiadurak batzearen emaitza izango da. Puntuazioa emateko, jaitsiera- eta igoera-abiaduren batura handiena duen eskaintza hartuko da erreferentziatzat, eta gehieneko puntuazioa esleituko zaio. Gainerako eskaintzak modu proportzionalean puntuatuko dira.

Eranskineko I. taulan, enpresa lizitatzaileek linea bakoitzerako eskaintzen dituzten abiadurak adierazi beharko dituzte.

b) Telefonia mugikorreko datuen hileko bolumena

Balorazio-irizpidearen % 15 izango da.
"B-I", "B-II", "C-I" eta "C-II" azpimotetako datuak deskargatzeko hileroko bolumenak bider azpimota bakoitzeko kontratatutako lerro kopurua eginda ateratzen den emaitza izango da. Puntuazioa emateko, jaitsiera- eta igoera-abiaduren batura handiena duen eskaintza hartuko da erreferentziatzat, eta gehieneko puntuazioa esleituko zaio. Gainerako eskaintzak modu proportzionalean puntuatuko dira.
Eranskineko II. taulan, enpresa lizitatzaileek lerro-azpimota bakoitzerako proposatzen dituzten hileko datuen bolumenak adierazi beharko dituzte.

ERANSKINA

I. TAULA – TELEFONIA FINKOA: TARIFA LAUAK ETA ABIADURAK

Linea	Helbidea	Tarifa laua (BEZ gabe)	Abiadura Jaitsiera :	Abiadura igotzea
SIP TRUNK-Connect-Lan 20 kanal, 119 DDIs: NEBA 350/350 Mbps FTTH	Donibane kalea 19 (Udaletxea)			
FTTH Despega Zerbitzua (1 IP)	Donibane kalea 19 (Udaletxea)			
FTTH Despega Zerbitzua (8 IP)	Donibane kalea 19 (udaletxea)			
FTTH Despega zerbitzua + ahots-lerroa	Marinelen kalea 4 (Epa)			
FTTH Despega zerbitzua + ahots-lerroa	Gran Sol 11 (Gaztelekua San Pedro)			
FTTH Internet NEBA-VULA	Euskadi etorbidea z.g. (Alkateordetza)			
FTTH Despega Zerbitzua	Bidasoa 1 (Olhp)			
Internet 500 Mega 1 IP	San Sebastian Z/G (Musika Eskola)			
FTTH Despega Zerbitzua	Ulia etorbidea 13 bis (Ulia Kultura)			
Internet 500 Mega	Kupeldegi 11 (Gizartekintza Antxo)			
FTTH Internet NEBA-VULA	Hamarretxeta 13 (Liburutegia Antxo)			
FTTH Internet NEBA-VULA	Hamarretxeta 25 (Gaztelekua Antxo)			

Baldintza-agiri honen J-1-a) atalean ezarritakoaren arabera, enpresa lizitatzaileak lerro bakoitzeko adierazi beharko du eskaintzen duen urteko tarifa laua (BEZik gabe), bai eta linea horretarako proposatzen dituen jaitsiera- eta igoera-abiadurak ere.

II. TAULA – TELEFONIA MUGIKORRA: TARIFA LAUAK ETA DESKARGA-BOLUMENAK

Motak eta azpimotak	Tarifa laua (BEZ gabe)	Hileko deskarga-bolumena
A motako tarifa: SMS bakarrik.		(ez adierazi)
B-I azpimota: 1-3 Gb-ko datuak bakarrik		
B-II azpimota: 4-10 Gb-ko datuak bakarrik		
C-I azpimota: Ahotsa, SMS-ak eta 1-3 Gb-ko datuak		
C-II azpimota: Ahotsa, SMS-ak eta 10-20 Gb-ko datuak		

Lerro-mota eta -azpimota bakoitzeko, enpresa lizitatzaileak urteko tarifa laua (BEZik gabe) eta eskaintzen duen hileko datuen deskarga-bolumena adierazi beharko ditu ("A" tasarako (soilik SMS) ez da beharrezkoa izango datu-bolumena adieraztea). Eskaintzak aztertzeko, Udalak zenbateko eta bolumen horiek gaur egun kontratatutako linea kopuruarekin biderkatuko ditu. Zenbatekoak eta bolumenak eskaintzak baloratzeko erabiliko dira.

III. TAULA – Tarifa lauetatik kanpo utzitako deiak

Dei-mota	Ezartze-kostua	Minutuko kostua
Nazioartekoak		
902 zenbakietara		
Sare inteligentera		
Beste batzuk (zehaztu):		

Tarifa lauetatik baztertutako dei mota bakoitzeko, enpresa lizitatzaileak ezartze-kostua eta minutuko proposatzen duen kostua adierazi beharko du (BEZik gabe). Ondoren, Udalak arestian deskribatutakoaren arabera kalkulatuko ditu kostuak.
Enpresa lizitatzaileren batek proposatzen badu tarifa lautik hiru dei-mota horietakoren bat ez kanpo uztea, honako hau idatzi beharko du dagokion laukitxoan: TARIFA LAUAREN BARNE.
Aitzitik, enpresa lizitatzaileak proposatzen badu tarifa lautik kanpo uztea beste dei mota batzuk, lerro berriak gehitu beharko dizkio taulari, dagozkion ezarpen- eta minutu-kostuekin.
Taula honetan berariaz baztertu ez diren zerbitzu edo dei guztiak tarifa lauetan sartuta daudela ulertuko da, eta, beraz, enpresa esleipendunak ezin izango du fakturatu.

A) OBJETO DEL CONTRATO.

1. El objeto del presente pliego es la contratación de la **TELEFONÍA FIJA (Voz y Datos) y TELEFONÍA MÓVIL (Voz y Datos)** del Ayuntamiento de Pasaia y sus organismos autónomos Pasaia Musikal y Pasaiako Udal Euskaltegia (en adelante, Ayuntamiento).
2. Dentro de los siguientes servicios no serán objeto del contrato:
   a) En telefonía fija: El Ayuntamiento cuenta con un sistema propio de VozIP de propiedad municipal (incluidas centralitas y terminales) al que se conectan sus sedes principales y sus dos organismos autónomos. Dado que el apartado de comunicaciones internas está correctamente solucionado, este aspecto queda fuera del objeto del contrato y las empresas licitadoras no necesitarán presentar propuestas encaminadas a resolver esta cuestión, ni en cuanto a equipamientos ni en cuanto a creación de redes privadas virtuales.
   b) En telefonía móvil: El Ayuntamiento dispone de un número suficiente de terminales telefónicos en propiedad para cubrir sus necesidades. Todos los terminales están configurados para ser utilizados con cualquier operadora. Por tanto, las empresas licitadoras no necesitarán ofertar terminales u otros dispositivos similares.
3. De igual forma, no será necesario que las empresas licitadoras propongan soluciones de integración entre los sistemas de telefonía fija y de telefonía móvil, ni de redes privadas virtuales, ni de planes de numeración privados, etc.
4. En ningún caso se establecerán compromisos de permanencia más allá de la duración del contrato, ni para las líneas actuales, ni para las futuras. Asimismo, los compromisos de permanencia que eventualmente pudieran haberse pactado quedarán sin efecto en caso de rescisión del mismo y la empresa adjudicataria no podrá aplicar ningún tipo de penalización o recargo por este concepto.
5. Dada la constante evolución del mercado de telecomunicaciones en soluciones, servicios y tarifas, la empresa adjudicataria se comprometerá a aplicar automáticamente al Ayuntamiento todas las mejoras de carácter técnico, operativo o económico que se le pudieran aplicar.
6. Las altas de nuevas líneas o servicios que se produzcan durante la vigencia del contrato darán lugar al correspondiente incremento de costes por el importe unitario indicado en la oferta. De igual forma, las bajas de líneas o servicios producidas durante la duración del contrato darán lugar a la minoración correspondiente.
7. Si durante la vigencia del contrato el Ayuntamiento precisara contratar algún producto de naturaleza distinta a los contratados en la actualidad, la tarifa que se deberá aplicar a este nuevo tipo de productos deberá acomodarse de forma homogénea con el resto de tarifas ofertadas.
